

Eskola eta dialektoak: irakaskuntzan gertatzen diren arazoak eta irtenbideak

Agurtzane Elordui Urkiza
Euskal Filologia Saila

Julian Maia Larretxea
Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila

Laburpena:

Euskal hizkuntzaren aldaera estandarra (euskara batua) sortu eta garatzen hasi zenetik, aldaera horri lehentasuna eman zaio eskola instituzioaren baitako jardunbideetan, eta horrela, bestelako euskalki aldaerak bigarren maila batean geratu dira, edo ezikusia egin zaie besterik gabe. Baina azkeneko urteotan ikusten da berriz ere badagoela eztabaida zenbateko balioa duten euskalkiaren berezitasunek komunikazio testuinguru desberdinetan, haien artean sartzen dela irakaskuntzarena. Horrek galdera batzuk dakartza zer tratamendu eman behar ote zaien aldaera horien ezaugarriei eskola mailan. Ikerketa ildo honek alor horretan sortzen diren zalantza batzuei erantzun nahi die.

Gako hitzak: *Euskara/ hizkuntzaren didaktika/ aldaera estandarra eta dialektoak*

Resumen:

Desde la creación y desarrollo de la lengua estándar (euskara batua) esa modalidad lingüística ha recibido un trato de preferencia en las actividades llevadas a cabo en la institución escolar, de manera que las otras variantes dialectales han quedado relegadas a un segundo plano o incluso ignoradas. Sin embargo, en los últimos años se percibe un resurgir del debate acerca del valor de los usos dialectales en diferentes contextos comunicativos, entre ellos el referente a la escuela, lo que plantea una serie de interrogantes acerca del tratamiento que dichas variantes han de recibir en el mencionado contexto. Esta línea de investigación pretende responder a una serie de cuestiones que se plantean en ese ámbito.

Palabras clave: *Euskera/didáctica de la lengua/variedad estándar y dialectos*

AUZIA ZERTAN DEN

Egungotasun handiko auzia da euskal hizkuntzaren dialektoak nola tratatzen diren edo tratatu behar liratekeen irakaskuntzan, eta gure ustez, hizkuntzaren didaktikak alor horretan sakondu behar du. Are gehiago, kontuan hartzen badugu zenbateko garrantzia duen eskola instituzioak euskararen normalizazio prozesuan, izan ere beraren egiteko bat baita ikasleek hizkuntzaren bidez ahalik eta adierazpen ahalmen handiena lor dezatela eta hizkuntza al bait egokienik jakin dezatela, gizartearen baitan berorrek betetzen dituen funtzio askotarikoetan.

Askok uste dute, euskara batua izeneko hizkuntza eredu agertu eta garatzen hasi zenetik, eredu horrek lehenasunezko trataera jaso duela irakaskuntzaren alorrean. Lehenasun horrek –beste faktore soziolinguistiko eta praktikoko batzuekin batera– ekarri du sarritan eskolan jaramonik gutxi edo batere ez egitea beste aldaeren (euskalkien, azpieuskalkien, tokian tokiko hizkeren) ezaugarriei.

Bestalde, hizkuntzarekin lanean ari diren profesionalen artean ere ez dago irizpide bateraturik ea zein diren eredu elkarretarailean “sar daitezkeen” ezaugarriak. Hala gertatzea, dena dela, ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu aldaera estandarren muga zehatzak ez direla ongi markatuak, gutienez bi arrazoi hauengatik: batetik, euskara batua nahiko “gaztea” delako (Euskaltzaindiak 1968an eman zion lehenengo onespena eredu horri), eta bestetik, euskara batuaren eta euskalki(ar)en arteko harremanak aski gatazkatsuak izan direlako euskara batua sortu zenez geroztik. Bestalde, ez da ahantzi behar aldaera estandarra berez ere alda daitekeela denboraren joanean, gutxi edo asko.

Hala ere, euskara batuaren sortzeak eta garatzeak hizkuntzari bere osoan aurreramentu gaitza ekarri badio ere, eredu horrek ez ditu ito euskalkiak eta bestelako aldaera xeheagoak eta hedadura geografiko txikiagoak, oraindik ere berauek ez baitute galdu beren komunikazio ahalmena Euskal Herri guziko hainbat eskualdetan, toki orotan bizkortasun berdina ez baldin badute ere, jakina.

Testuinguru horretan, azken urteotan berriz ere berretu da interesa bestelako aldaera horiek (tokiko hizkerak, eskualdekoak, euskalkiak, oro har) aztertzeke, eta bizirik dago eztabaida nolako papera jokatzaren duten (edo jokatu beharko luketen) hizkuntzaren normalizazio prozesuan.

Eskola instituzioak ez du eztabaida hori besteren gain utzi behar; izan ere, autore anitzek adierazten dute nolako garrantzia duten hizkuntzaren aldaera ez-estandarrek belaunaldi berrietako ikasleen hizkuntza prestakuntzan, eta ekarpen teorikoak ugari dira ildo horretan. Orobat, ikerketa lan berri batzuetan (Dorian 1981; Elordui 1995, 1999a, 1999b, 2000a, 2000b; Hill 1986; Schmidt 1985), azpimarratu egiten da axola handiko kontua dela tokiko aldaerekin ikasgelan egoki jardutea, horretan ongi jokatzek balio handia baitu hizkuntza gutxituak familian eta jendartearen zaintzeko eta indartzeko orduan. Halaber, agerian jartzen da nolako ondorio soziolinguistikoak ekar ditzakeen hizkera horiek gaizki edo batere ez tratatzeak; ondorio horiek, izan ere, ez baitote bakarrik euskalkiaren erabilerari eragiten belaunaldien arteko familia harremanetan-eta, baizik eta hizkuntzaren beraren transmisioari, hau da, edozein aldaerari.

Ekarpen teoriko horiek, dudarik gabe, baieztatzen dute eztabaida egin behar dela ea nola ulertu behar den euskalkien papera eredu bateratzailearekiko harremanetan, eta aztertu behar dela nolako inplikazioak dituen horrek gela bakoitzeko irakats-jardueran.

Irakats-lan hori, berriz, ikastetxe bakoitzean, ingurune dialektologiko eta soziolinguistikoko zehatz eta jakin batean gertatzen da; ingurunearen ezaugarriak aski desberdinak izan daitezke herriaren edo eskualdearen arabera.

Ildo horretan, aurkezten dugun ikerketa ildo honek bi aldagai nagusi izango ditu lan-gai:

- 1) Eskola baten edo eskola-multzo baten egoera linguistikoa bildu eta islatzen duten datuak, bi motakoak izango direnak: alde batetik, dialektologiaren ekarpenek bertako ezaugarrien berri emango dute, eta bestetik aldagai soziolinguistikoei informazioa emango digute zenbateko bizkortasuna duen eskolaren inguruko aldaera jakin batek.
- 2) Eskolak zeregin berezia du hizkuntza ikas-irakasteari dagokionez, eta horrek eramaten gaitu kontuan hartzera, alde batetik, irakaskuntza sisteman badirela maila desberdinak (Haur Hezkuntzatik hasi eta Unibertsitatera sartu bitartean), eta bestetik, hizkuntzaren alorrean beharbada jardunbide desberdinak erabil daitezkeela ikasgelako hizkuntza-lan desberdinetan (ahozko eta idatzizko kodeak, formaltasun maila desberdinak –gelaren barruan eta handik kanpora, beti ere eskolaren testuinguruan-).

Balitzko jardunbide desberdin hauek gogoan edukitzeko arrazoi sakonekoa da hizkuntzaren ulerkera: berorrek funtzio desberdinak betetzen ditu, komunikazio testuinguruaren nolakoa kontuan hartuta, eta ez da, beraz, errealitate monolitikoa eta funtzio bakarrekotzat hartzen.

Aldez aurretik egin behar den azterketa linguistikoaz eta soziolinguistikoaz gainera, ikerketa ildo honek izaera praktikoa izan nahi du: modurik zuzenenean eta dokumentatuenean eragin nahi du, orientabide eta jardunbide zehatzak eskaintzeko ea zein ezaugarri dialektal onartu beharko lirartekeen ikasgelan eta zein ez. Horrek, hizkuntza maila desberdinak bereiztera eramango gaitu noski, eta gogoeta egitera behartuko ea horietako zein diren egokiak eskolaren testuinguruan onartzeko edo sustatzeko, gogoan dugularik irakaskuntzaren testuinguruan harreman mota diferentek gertatzen direla.

IKERTZEKO TRADIZIOA

Ikerketa ildo honek bi iturri izango ditu haietatik edateko: alde batetik dialektologiaren eta soziolinguistikaren ekarpenak hartu beharko dira aintzat, eta horrek erakutsiko digu nolako baldintza linguistiko eta soziolinguistikoetan gertatzen den heziketa-harremana (familia hizkuntzaren, tokiko hizkuntzaren, eskola hizkuntzaren arteko harremana; eskola-testuinguru bakoitzean benetan zenbateko bizkortasuna edo komunikazio balioa duen hizkera bakoitzak, eta abar...); beste aldetik, didaktikaren ekarpenak beretu behar ditu, izan ere jakintza arlo horrek aintzat hartu behar

baititu zein diren aldagaiak kontuan hartzekoak hizkuntza ikasteko eta irakasteko jarduerak ahalik eta emaitzarik hoberenak lor ditzan eskolaren testuinguruan.

Proposatzen den ikerketa ildo honetaz espezialista batzuek ekarpen teoriko gutxi-asko dokumentatuak egin dituzte, baina hala ere ez dago datu objektibo asko gai honek jaso duen tratamenduaren berri zehatza jasotzeko, beti ere irakaskuntzaren alorrean ari garela. Bada, hala ere, nondik hasi.

Alde batetik, euskal dialektologiako ikerketak berretze garaian dira. Tokiko hizkeren azterketak ugaltzen ari dira, eta saio horiek eskema nagusiagoetan biltzeko eta integratzeko ahaleginak ere nabari dira, horrela hedadura handiagoko eremuak hartuz eta azken batean Euskal Herri osoa barne hartzeko asmoarekin.

Hala ere, euskararen aldaki dialektalek eskolan nolako tratamendu zehatza jaso(tzen) duten aztertze lanak urri samarrak dira, baina nolahi ere oinarria bederen eskaintzen dute ikerketa ildo hau abiarazteko. Hala, Euskal Herriaz eta euskararen gainean ari garela, aintzat hartu behar dira Euskaltzaindiaren lana eta emaitzak, erakunde horrek gizarteari proposatzen dion eredu batuaren ezaugarriei dago-kienez, eta beste alde batetik, zenbat ekarri teoriko aipa ditzakegu: Koldo Zuazo (1999 eta 2000), Itziar Idiazabal (1984, 1992), Derio Irakasle Eskolako irakasleak (Agirre eta beste batzuk, 1985), Mendebalde Kultur Elkarte (1997, 1998, 1999, 2000 eta 2002), eta Julian Maiaren (2000) eta Juan Luis Goikoetxearen (2001) dok-tore tesiak.

Zer esanik ez, bada ekarpena ugari soziolinguistikaren esparrutik eta hizkuntzaren didaktikarenetik ere, bai Euskal Herrian bai Espainiako estatuan eta baita bes-tetan ere, euskarari aplika dakiokena, hemengo ezaugarriei egokitu ondotik (Trudgill 1983, López del Castillo 1982 eta 1988, Siguàn 1990, Cassany & Luna & Sanz 1994, ...). Ikerketa ildo honen esparruan sartzen da ekarpen horiek erkatzea, bai maila teorikoan eta bai praktikoan.

IKERKETA EREDUAK

Esana dugu ikerketa ildo honek aintzat hartuko duela dialektologia, baina hel-buru nagusia du euskalkien ezaugarriak eskolan nola tratatu.

Erabili gogo dugun dialektologia ereduaren bidez ahaleginak egingo ditugu bitxikeriak edo xokokeria garrantzi gabekoak alde batera uzteko, nahiz eta bereizi beharko diren zein diren halakoak eta zein ez, eta hartarako irizpideak ezartzen saia-tu. Saiatuko gara, orobat, gure aztergaiak nahiko uniformeak izan daitezela, horrela modua izateko bata bestearekin konparatzeko. Horrela, adibidez, axola handiagokoa izango zaigu hedadura handiagoetan gertatzen diren ezaugarriak aztertzea, honako edo harako herri edo auzo jakin batean gertatzen diren bereixkeriak baino, aski dei-garriak edo ez-ohikoak baldin badira ere (nahiz eta azken hauek ere izan dezaketen beren balioa toki jakin horretako eskolan).

Aztergai hartzen diren eskoletako ikasleen ingurune familiarra eta sozialaren egoera soziolinguistikoa ikertzeko, honako egile hauek izango ditugu gidari: Dorian (1981, 1982, 1984), Labov (1972), Thomason eta Kaufman (1985), Silva Corbalán

(1994) eta Schmidt (1985). Horiek, hizkuntza minoritarioen azterketa soziolinguistikoak egin dituzte, eta arakutzen dute hizkuntza komunitateak nolako jarrerak erakusten dituen tokian tokiko dialektoei buruz eta aldaera estandarren gainean; orobat, zein aldagai sozialek eragiten duten hiztunek aldaera bat edo beste erabiltzeko orduan; dialektoek, aldaera estandarrek eta gaztelaniak komunitate hauetan nola banatzen dituzten funtzioak; eta azken batean, komunitatea osatzen duten kideen komunikazio linguistikoaren sarearen azterketa, bere osoan.

Hizkuntza-jarreraren analisisian, alde batetik aztertzen dugu nolako iritzia duten komunitateko kideek tokiko euskalkia eta aldaera estandarra erabiltzeaz, jendarteko egoera desberdinetan; horretaz gainera, ikusi nahi dugu komunitate horietako hiztun helduek nolako jarrerak dituzten euskara batua eskolan erabiltzeaz, eta zenbateraino ikusten duten beharrezkoa euskalkia ere aintzat hartzea eta irakastea. Guraso edo aitaita-amama euskalduneko ikasleek haien dialektoaren aurrean duten jarrera ere aztertzen da.

Faktore-sare konplexuak gobernatzen du hiztunek egiten duten hizkuntza hautua. Ildo horretan, aztertuko dugu komunitate jakin batean noiz eta zergatik erabiltzen den euskalkia, eta baita euskara batua eta gaztelania ere. Beste faktore batzuen artean, honako hauek hartzen ditugu aintzat: hiztunek zenbateraino dakiten aldaera jakin batean, komunikazio egoeraren nolakoa, solaskidea, gaia eta baita aldaera bakoitzean zenbateraino konfiantza eta trebetasuna duten berba egiten dutenek.

Dialektoaren, aldaera estandarren eta gaztelaniaren funtzio banaketaren azterketaren mamia honako hau izango da: analizatzea, aztergai izango diren komunitateetan, ea aldaera bakoitza nolako gizarte ingururekin erlazionatzen den.

Azkenik, azterketa soziolinguistikoa saiatuko da sakontzen komunitateko kideen komunikazio linguistikoaren sarea nola eratua den. Azterketa soziolinguistikoaren zati honek ematen dizkigu daturik gehienak ulertzeko hizkuntzaren egungo erabilera eta nola dagoen euskararen transmisioa familiaren barruan gaur egun. Zati honetan, izan ere, komunitate bateko belaunaldi desberdinen arteko hizkuntza harremana aztertzen dugu.

Euskalkiaren ezaugarriak eskolan nola tratatzen diren aztertzeko, berriz, ikerketa egiteko bitartekoak edo baliabideak askotarikoak izan daitezke. Ez dugu zerrenda zehatza eta xehea eman nahi, baina baliabide egokiak izan daitezke eskoletako lanaren grabazio periodikoak eta metodikoak, euskarri desberdinetan (bideoa, magnetofonoa) eta eskola egoera desberdinetan; orobat erabil daitezke inkestak euskarri idatzian, gai jakin bati buruz, dela irakasleei edo ikasleei edo eskola guztiari zuzenduak; azterketa konparatiboak ere egin daitezke, maila teoriko hutsean, gai harturik beste herri edo hizkuntzatan egin diren proposamenak edo jardunbide konkretuen emaitzak.

IKERTZEKO GAIAK

-Eskola non dagoen, hango hizkeraren eta dialektoaren hizkuntza ezaugarriak aztertzea

-Hizkuntza komunitateen jarrerak aztertzea bertako euskalkiaren eta aldaera estandarraren gainean.

-Hizkuntza hautua egiteko orduan eragiten duten aldagai sozialen analisia.

-Dialektoaren, aldaera estandarraren eta gaztelaniaren funtzio-banaketaren analisia.

-Hizkuntza komunitatea osatzen duten kideen komunikazio linguistikoaren sarearen analisi globala.

-Irakasleek ikasgelan euskalkiaren ezaugarrien aurrean zer jokaera duten aztertzea (kode idatzian, eta ahozkoan).

-Eskola lanetan zein eredu onartu edo sustatu erabakitzeke orduan irakasleek zer irizpide erabiltzen dituzten aztertzea.

-Aztertzea zein arrazoitan oinarritzen diren irakasleak eta ikasleak eskola giroan modu jakin batean jokatzeko.

-Aztertzea irakasleek eta ikasleek eginiko hizkuntza ekoizpenak, eskola giroan (beti ere, euskara batuaren eta euskalkien arteko harremanen ikuspuntutik).

-Ikastetxeen hizkuntza politikak aztertzea, hizkuntzaren aldaera desberdinekiko.

-Irakaskuntzako materialen azterketa eta kritika.

-Materialak sortzeko edota egokitzeko irizpideak.

-Jardunbide konkretuak proposatzea modu arrazoitu batean, ikasgelan aritzeko.

-Europa inguruan indarrean diren ereduak aztertzea (katalana, galegoa, espainolaren dialektoak, alemana, italiera...)

-Irakasleen prestakuntzarekin zerikusia duten atalak, gai honen inguruan

BIBLIOGRAFÍA

- AGIRRE, J. M.; EGUZKITZA, I.; IDIAZABAL, I.; LARRINGAN, L. M. (1985). *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian: Arazoak eta zenbait proposamen/La enseñanza en euskera en Vizcaya: problemas y algunas propuestas*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- ARACIL, Lluís V. (1979). Educació i Sociolingüística. In *Treballs de sociolingüística catalana 2*, Valentzia.
- ARACIL, Lluís V. (1986). *Papers de sociolingüística*. Bartzelona: La Magrana.
- AUSUBEL, D. P.; NOVAK, J. D.; HANESIAN, H. (1983): *Psicología educativa: un punto de vista cognoscitivo*. Mexiko: Trillas (2. argitaraldia).
- AZKUE, R. M. (1926). *Morfología Vasca I-III*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969
- BARREÑA, A. (1993). *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabeakuntza-garapena: infl eta konp funtzio-kategorien erabileraz*. Tesis doctoral. UPV-EHU. Vitoria-Gasteiz.
- BILBOKO UDALA. BARRAINKUA UDAL KULTUR ETXEA (arg.) (1993). *Bizkaiko euskera, bizkaiera?* Bilbo: Bilboko Udala.
- BOLONYAI, A. (1998). In-between languages: Language shift/maintenance in childhood bilingualism. *The international Journal of Bilingualism*, 2. 21-43.
- BOLONYAI, A. (1999). The Hidden Dimensions of Language Contact: The case of Hungarian-English Bilingual Children. PhD.Dissertation. University of South Carolina.
- BRONCKART, J. P. (1988). Fonctionnement, normes et connaissances. Contribution à une clarification conceptuelle. In *Eusko Jaurilaritza* (1988), II. 47-62.
- CAMINO, Iñaki (1997). *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- CASSANY, Daniel; LUNA, Marta; SANZ, Glòria (1994). *Enseñar lengua*. Bartzelona: Graó.
- COLL, C. Y OTROS (1994). *El constructivismo en el aula*. Barcelona: Graó (2. argitaraldia, berrikusia).
- DENISON, N. (1982). A Linguistic ecology for Europe? *Folia Linguistica* 16. 5-15.
- DONNI DE MIRANDE, N. E. (1980) Lingüística y planificación de la enseñanza de la lengua materna, *Universidad 95*. Argentina. 114-124 (INIST datu basetik hartua).
- DORIAN, N. (ed.) (1989). *Investigating obsolescence. Studies in Language Contraction and Death. Studies in the Social and Cultural Foundations of Language*, 7. Cambridge: Cambridge University Press.
- DORIAN, N. (1981). *Language Death: the life cycle of a Scottish Gaelic dialect*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.

- DORIAN, N. (1982). Defining the speech community to include its working marking. In ROMAINE (ed.). 25-33.
- DRESSLER, W. u & R. WODAK-LEODOLTER (eds.) (1977). *Language Death. International Journal of the Sociology of Language* 12.
- ELEXPURU, Juan Martin (1996). Herri-euskararen eremua. *Euskera* 41, 1996-3. 523-529.
- ELORDUI, A. (1995). *Hizkuntz heriotza eta aldaketa morfologikoa: Hegomendebaldeko bizkaieraren kasua*. Tesis Doctoral. Vitoria-Gasteiz
- ELORDUI, A. (1994). Aportación del estudio de los dialectos terminales en la planificación lingüística de la lengua vasca. *XII Congreso Nacional de AESLA, Nuevos horizontes de la lingüística aplicada* (Universidad Autónoma de Barcelona 1994).
- ELORDUI, A. (1999 a). Disruption of Language Transmission among Basque Dialects. *Endangered Language and Education*. Dublin: University of Ireland.
- ELORDUI, A. (1999 b). Language loss among some Basque Dialects. *Colloque International sur la Langue maternelle/The native Tongue*. Paris.
- ELORDUI, A. (2000 a). Language Contact and Language Loss. Language Contact and Language Change, *45th Annual Conference on Language Variation in Europe*. Barcelona: Universitat Pompeu Fabra
- ELORDUI, A. (2000 b). The influence of language contact in the process of language loss. *1st International Conference on language variation in Europe*. Barcelona: Universitat Pompeu Fabra.
- ETXEBARRIA, Juan M. (1991). *Zeberio Haraneko Azterketa Etnolinguistikoa*. Bilbo: Ibaizabal.
- ETXEBARRIA, Juan M.(1995a). *Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak*. Euba-Amorebieta: Ibaizabal.
- ETXEBARRIA, Juan M.(1995b). *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*. Bilbo: Labayru-BBK.
- EUSKAL IKASKUNTZEN INSTITUTUA. DEUSTUKO UNIBERTSITATEA (1992). *Bizkaieraren lekua gaur*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea-Universidad de Deusto.
- EUSKALTZAINDIA (1979a). Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. *Euskera* 24. 103-106.
- EUSKALTZAINDIA (1979b). Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan. *Euskera* 24. 1979-2. 697-698
- EUSKALTZAINDIA (arg.) (1992). *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak IKER* 7. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1994b...). *Euskaltzaindiaren arauak I*. Bilbo: Euskaltzaindia.

- EUSKALTZAINDIA (1997-2000). *Euskaltzaindiaren Arauak* 2. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA (2000-...). *Euskaltzaindiaren Arauak* 3. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIAREN GRAMATIKA BATZORDEA (1985-1999). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I, II, III, IV eta V*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1982): Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan. Vitoria-Gasteiz: EJAZN.
- EUSKO JAURLARITZA (1988). *II. Euskal Mundu Biltzarra*. Bilbo: EJAZN.
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1992a). *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Haur Hezkuntza*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN
- EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1992b). *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza (Etaparako sarrera, ...)*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN
- FERGUSON, C. A. (1959). Diglosia. *Word* 15. 325-340.
- FISHMAN, J. A. (1964). Language maintenance and language shift as a field of inquiry. *Linguistics* 9. 32-70.
- FISHMAN, J. A. (1967). Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism. *Journal of Social Issues* 23. 29-38.
- GAL, S. (1979). *Language Shift: Social determinants of linguistic change in bilingual Austria*. New York: New York Academic Press.
- GOIKOETXEA, Juan Luis (1994a). Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak. *Euskera* 39. 795-808.
- GOIKOETXEA, Juan Luis (1994b). Bizkaieratik baturako ekarpenaren hasiera. *Euskera* 39. 808-830.
- GOIKOETXEA, Juan Luis (1996). Euskara batua eta bizkaiera ikasgelan. *Euskera* 41. 1996-3. 517-521.
- GOIKOETXEA, Juan Luis (1997a). Hamalau erantzun bizkaieraren irakaskuntari. In *Mendebalde Euskal Kultur Elkarte* (1997). 93-99.
- GOMEZ, Ricardo & LAKARRA, J. A. (ed.) (1995). *Euskal Dialektologiarako Kongresua (Donostia, 1991-IX)*. ASJUren gehigarriak, XVIII. Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa.
- HAEE-IVAP (1996). Eztabaida: euskalkien tokia euskararen normalkuntzan. *Administrazioa euskaraz* 12. Gasteiz: HAEE-IVAP. 20-21.
- HAUGEN, Einar (1966). Dialect, Language, Nation. In HAUGEN, E. (1972), 237-254. (1996 in *American Antropologist*, 68-4. 922-935).
- HAUGEN, Einar (1972). *The ecology of language*. Stanford: Stanford University Press.

- HERAS BORRERO, Jerónimo de las (1987). Hacia la programación diferenciada de lenguaje para 'andaluces-parlantes'. In M.E.C. (ed.) (1987). 179-197.
- HILL, J. (1989). The social functions of relativization in obsolescent and non-obsolescent languages, in Dorian (ed.). 149-164.
- HILL, J. H. & HILL, K. C. (1986). *Speaking Mexicano. Dynamics of Sincretic Language in Central Mexico*. Tucson: University of Arizona Press.
- IBARRA MURILLO, O. (1995). *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Pamplona/Iruñea: Gobierno de Navarra-Departamento de Educación, Cultura, Deporte y Juventud-Nafarroako Gobernua-Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteen Departamentua.
- IDIAZABAL, I. (1981). Hizkuntzaren psikopedagogia. *Euskal Herri Saila* 4. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko argitarazioak. 195-212.
- IDIAZABAL, I. (1984). Euskara eta eskola. In RUIZ OLABUENAGA & OZAMIZ (arg.) (1986). 167-181.
- IDIAZABAL, I; OCIO, B. (1990). Estandarización y escolarización: procesos paralelos e interdependientes. El caso del euskara. In SIGUÁN, M. (coord.)(1990a). 197-209.
- IDIAZABAL, I. (ed.) (1992a). *Pedagogía del texto-Testuaren pedagogia*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- IDIAZABAL, I. (ed.) (1992b): Euskararen normalkuntza eta kurrikulumaren berrikuntza. In IDIAZABAL, I. (1992a). 17-29.
- KUTER, L. (1989). Breton vs French: language and the opposition of political, economic, social, and cultural values. In DORIAN (arg.). 75-90.
- LAMBERT, R. D. & FREED, B. F. (ed.) (1982). *The loss of language skills*. New York: Rowley.
- LARRINGAN, Luis Maria (1993). Euskara batua eta euskalkiak. Aintzat hartu beharreko praktikak. *Jakin* 76. 1993 maiatza-ekaina. 11-39.
- LÓPEZ del CASTILLO, LL. (1982). *Llengua standard i nivells de llenguatge*. Bartzelona: Laia.
- LÓPEZ del CASTILLO, LL. (1988). *Quina llengua i quina escola*. Bartzelona: Aliorna.
- MAIA, J. (2000). *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*. Tesis doctoral de la UPV-EHU.
- M.E.C. SUBDIRECCIÓN GENERAL DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO (1987). *Innovación de la enseñanza de la lengua y la literatura. Actas y Simposios*. Madrid: M.E.C. (Simposio celebrado en junio de 1984).
- MENDEBALDE EUSKAL KULTUR ELKARTEA (M. E. K. E.) (1997). *Mendebaldeko euskara XX. mende goiengan*. Bilbo.

- MENDEBALDE EUSKAL KULTUR ELKARTEA (M. E. K. E.) (1998). *Mendebaldeko euskeraren ekarria*. Bilbao.
- MENDEBALDE KULTUR ALKARTEA (1999). *Euskalkien lekua literaturan*. Bilbo: BBK.
- MENDEBALDE KULTUR ALKARTEA (2000). *Mendebaldeko herbetearen formalizazioa* Bilbo: BBK.
- MITXELENA, K. (1981a). Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia. In *Muga* 19. 1981. 4-19.
- MITXELENA, L. (1981b). Lengua común y dialectos vascos. *ASJU* 15. 291-313.
- OIHARTZABAL, Beñat (1996). Euskara batua eta euskalkiak (*Aitzolen mendeurrena eta II. Jagon Jardunaldiak*). *Euskera* 41. 511-515.
- ROMAINE, S. (ed.) (1982). *Sociolinguistic variation in speech communities*. Londres: E. Arnold.
- RUIZ BIKANDI, U.; TUSÓN VALLS, A. (1997). Variedades geográficas del español y norma lingüística. *Textos* 12. 5-8.
- RUIZ OLABUENAGA, J. I. & OZAMIZ, J. A. (argit.) (1986). *Hizkuntza minorizatuen soziologia. Sociología de lenguas minorizadas*. Donostia: Txartalo.
- SABATER, Ernest (1991). *Ni 'heavy' ni 'light': català modern!*. Bartzelona: Editorial Empúries.
- SALABURU, P. (1994). Euskara batuaren egungo premiak. *Euskera* 39. 1994-3. 675-695.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. *Txepetx* (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las Lenguas*. Lizarra.
- SANTAMARIA ANSA, C. (1979). El euskera como lengua escolar. *Euskera* 24. 1979-2. 465-481.
- SARASOLA, I. (1997). *Euskara batuaren ajeak*. Irun: Alberdania.
- SCHMIDT, A. (1985 a). The fate of ergativity in dying Dyirbal. *Language* 61. 378-396.
- SCHMIDT, A. (1985 b). *Young people's Dyirbal. An example of language death from Australia*. Cambridge: Cambridge University Press.
- SIERRA, J.; OLAZIREGI, I. (1993). Las lenguas en el sistema educativo del País Vasco. In SIGUÀN, M. (coord.) (1993). *Enseñanza en dos lenguas (XVI Seminario sobre "Lenguas y educación"*), Bartzelona: ICE Universitat de Barcelona-Horsori. 59-70.
- SIGUÀN, Miquel (coord.) (1990). *Lengua del alumno, lengua de la escuela (XII seminario sobre "Educación y lenguas"*, Sitges, 1987). Bartzelona: ICE de la Universitat de Barcelona.
- TRUDGILL, P. (1977). Creolization in reverse: reduction and simplification in the Albanian dialects of Greece. *Transactions of the Philological Society*, 1976-7. 32-50.

- TRUDGILL, P. (1983 a). *Accent, dialect and school*. Londres: Edward Arnold (publishers)
- TRUDGILL, P.(1983 b). *On dialect. Social and geographical perspectives*. New York: New York University Press.
- URUBURU, Laura (1993). Bizkaieria eskolan. In BILBOKO UDALA. BARRAIN-KUAKO UDAL KULTUR ETXEA (arg..)(1993).197-223.
- VIGOTSKY, L. S. (1979). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Bartzelona: Crítica-Grijalbo.
- VILLASANTE, L. (1970). *Hacia la lengua literaria común*. Oñati: EFA.
- VILLASANTE, L. (1988). *Euskararen auziaz*. Oñati: EFA.
- WEINREICH, U. (1964). *Languages in contact*. The Hague: Mouton.
- ZARATE, Mikel (1978). Euskara batua eta euskalkiak. *Euskera* 25. 557-568.
- ZUAZO ZELAIETA, K. (1988a): *Euskararen Batasuna*, IKER-5. Bilbo: Euskaltzaindia
- ZUAZO, K. (1988c). Euskararen batasunaz gogoeta zenbait. *Jakin* 49. 99-122.
- ZUAZO, K. (1993). Euskalkiak, askatu gabeko korapiloa. *Jakin* 76, maiatza-ekaina 1993. 41-62.
- ZUAZO, K. (1995). Burundako hizkera, in GOMEZ & LAKARRA (ed.) (1995). 297-364.
- ZUAZO, K. (1998b). Euskalkiak, gaur. FLV 79. Iraila-abendua 1998. 191-233.
- ZUAZO, K. (1999b). *Deba ibarreko euskaria*. Oñati: Deba Ibarreko udalak.
- ZUAZO, K. (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania